

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Itsasu

Aurkibidea

Udalerria: Itsasu

Sarrera



Lapurdiko udalerri hau Ezpeletako kantonamenduan dago kokatuta. Iparraldean Kanbo eta Larresoro ditu mugakide, mendebaldean Ezpeleta eta Ainhua, Ekialdean Luhuso eta Bidarra, eta, azkenik, hegoaldean Nafarroa Garaiarekin egiten du muga. Ezpeletako piperra ekoizten duen sor-markaren barruan dago udalerria. 1994. urtetik aurrera, Itsasuko gereziaren produkzioa bultzatzeko badago interes ekonomikodun talde bat.

- **Biztanleak:** 2.018
- **Euskaldunak:** %42,2

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **23**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **23**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskalkiak.eus
- Gazte gara gazte
- IKER taldea

Hizlariak

Bernardette

Maryse Cachenaut (1971)



Maryse Cachenaut, 1971an jaioetako Itsasuko laboraria da eta Ipar Euskal Herriko laborantza iraunkorraren figura garrantzitsua. 1995ean Etxeberria familiako baserriaren segida hartu zuen eta bere senarrarekin, esne-ardiak hazten ditu eta gereziak ekoizten ditu. 1994ean sortutako Itsasuko gerezien ekoizleen Xapata elkarteko lehendakaria da, Lurramako lehendakaria, Euskal Herriko Laborantza Ganberako sortzaileetako bat izan zen eta Euskal Herriko Laborarien Batasuneko sindikatuko kidea ere bada.

Peio Dospital *Doxpi* (1950)



Peio Dospital *Doxpi*, Itsasuko errugbilari ohia da. Ama Amaiurrekoa du eta aita donostiarra. Hamaika urterekin hasi zen Kanbon errugbian jokatzen eta okinaren ofizioa ikasten zegoelarik, Baionako Aviron taldearekin sinatu zuen. Hogei urte jokatu du Baionako lehen taldean eta 11 urtez Frantziako errugbiko selekzioan. Herri kiroletan ere aritu da, lasto-altxatzean batez ere. Errugbilari profesional bezala, bere euskaltzaletasuna beti erakutsi izan du eta euskararen aldeko ekimenetan sarritan parte hartu du. Errugbia utzi zuenean Ezpeletako trinketearen alboko *Chez Doxpi* jatetxea zabaldu zuen.

Mikel Hiribarren (1956)



Mikel Hiribarren 1956an jaio zen Itsasun. Soziologiako ikasketak egitera joan zen Bordelera, baina utzi egin zuen Zuberoan behar bereziak zituzten etxaldeetan urtebetez lan egiteko, soldadutza egitearen orde. Itsasura bueltau zenean, gurasoen baserrian lanean hasi zen eta hauek erretiroa hartu eta urte batzuetara, beste lau etxalderekin elkartu eta "Basaburuko saskia" izeneko elkarte sortu zuen, produktuak bezeroari zuzenean saltzeko helburuarekin. Itsasuko alkatea ere bada.

ISU-002 Hizlari ezezaguna (1964)

ISU-003 Hizlari ezezaguna

Leire Laskarai Urmeneta (1998)




Leire 1998ko irailaren 30ean jaio zen Baionan eta Itsasun bizi izan da betidanik. Itsasukoa bertakoa du aita, eta Iruñekoa, aldiz, ama. Bi senidetan zaharrena da. Literatur ikasketak egiten ari zen Baionako Etxepare Lizeoan elkarriketa egin genionean. Bere bi kusirekin elkarriketatu genuen eta Baxoa Euskaraz Elkartea, Iparraldeko hezkuntza sistema, Sehaska ikastolak, Udalekuak, bertso eskolak, mugikortasuna, hitanoa, musika, besta, Gasteizko ikasle giroa eta beste hainbat gai izan zituen mintzagai.

Ainhoa Sarasua Laskarai (1997)



1997ko martxoaren 4an jaio zen Ainhoa, Baionan, eta Itsasun bizi izan da beti. Aita Aretxabaletakoa du eta ama, aldiz, Itsasukoa. Bi ahizpa dira etxean eta bera da bietan gazteena. Baionako Etxepare Lizeoan ari zen ikasten elkarriketatu genuenean, baxoa egin aurreko azken urtea burutzen, ekonomia eta soziologia espezialitatea hautatuta. Baxoa Euskaraz Elkartea, Iparraldeko hezkuntza sistema, Sehaska ikastolak, Udalekuak, bertso eskolak, mugikortasuna, musika, besta eta beste hainbat gai izan zituen mintzagai.

Maddi Sarasua Laskarai (1995)



1995eko azaroaren 22an Baionan jaioa, Itsasun bizi izan da betidanik. Aita Aretxabaletakoa du eta ama, aldiz, Itsasukoa. Bi ahizpa dira etxean eta bera da bietan zaharrena. Euskal ikasketak ikasten ari da Gasteizen. Bertsolaria da eta ahizparekin eta kusiarekin elkarriketatu genuen. Baxoa Euskaraz Elkartea, Iparraldeko hezkuntza sistema, Sehaska ikastolak, Udalekuak, bertso eskolak, mugikortasuna, musika, besta, hitanoa, Gasteizko ikasle giroa eta beste hainbat gai izan zituen mintzagai.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Gasteizen euskal ikasketak egiten

- **Hizlaria(k):** Sarasua Laskarai, Ainhoa; Sarasua Laskarai, Maddi
- **Elkarriketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** ISU-004/019
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:23:22. **Bukatu:** 00:25:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena:** Maddik 2012-2013 ikasturtean hasi zituen euskal ikasketak. Astebururo herrira itzultzen saiatzen da. Alde handia dago Gasteizko girotik Itsasukora.

Transkripzioa

- Ados, bueno orduan oraintxe esan duzu Maddi e? Zuk e duela bi urte ezta? Egin zenuela ikasketak Gasteizen hasi? Eta horrek, nola eragin dio inguruari? Zure ahizpari, lehengusinari? Joaten zaizkizu bisitan? Zu etortzen zera? Ze da, ze martxa daramazu?

-Maddi: bai... ni saiatzen naiz asteburuetan gehienetan sartzen gira, bagira bon, lauzpabost horrela sartzen girenak autoz Gasteizetik. Beraz, lortzen dugu sartzea asteburuetan eta gero... adibidez, hauek badituzte Iparraldean bakantza gehiago gu baino eta Ainhoa etorri izan da hor azkenaldian. Bi aldiz edo jin zira? Pixka bat probatzera ikasle giroa ere, heldu den urteko hautuak egiten laguntzeko eta hola. Beti polita da pixua, badu xarma, ikasle bizia eta gero ostegunetan parranda pixka bat egin, ikusi hiriko giroa, aldatzen du ainitz, hemengo errealitatetik. Erakargarria da ez?

- Ainhoa: bai, bai, erakargarria da.

- Eta zu Maddi, bertan zer zaude e... alokairuan edo?

- M: bai... lehengo urtean amona Aretxabaletan bizi da eta egiten nuen joan-jina Aretxabaletatik Gasteizera. Ta aurten hartu dut pixua, bai hirunaka, alde zaharrear, bikain.

- Nongoak dituzu pisukideak?

- M: pisukideak, eh... bat Zalgizekoa, Xiberukoa eta bestea, Baionakoa. Ikusi hor ere ikusten da lagunak urrunekoak, Lizeoko lagunak.

- Eta Ainhoa, han ikusi duzuna, pixkat, e... bon, lehendik ere ezagutuko zenuen. Hango giroa eta?

- A: bai, ez beharbada ikasle bizia baina bai hango besta eta hola bai baina...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Baxoa Euskaraz Elkartea (ISU-004/007)

Baxoa Euskaraz Elkartea Etxepare Lizeoko ikasleek sortutako taldea da. Ainhoak eta Maddik taldearen helburuen eta egindako bidean erdietsitako lorpenen berri ematen dute, bai eta aurrera begirako helburuena ere.

2. Etxepare Lizeoa (ISU-004/009)

Etxepare Lizeoa Seaskako ikastetxea da Lapurdi, Baxe Nafarro eta Zuberoan batxilergoa euskara hutsean ikasteko aukera eskaintzen duen bakarra. Baionan kokatua da, eta ikasle askok bertako barnetegian ematen dute astea. Horrek alde onak eta txarrak ditu. Barnetegia, ordea, Tarnosen dago.

3. Euskal Udalekuak (ISU-004/013)

Bernedon, Abaigarren eta Goñin izaten dira Euskal Udalekuak. Ainhoak, Leirek eta Maddik Goñiko etxearekin dute lotura, txikitatik. Begirale moduan joaten dira gaur egun, Abaigarrera Ainhua eta Goñira Maddi. Leirek Abaigarren begirale izan nahi luke. Lan boluntarioa da begiraleena, baina gazte askok jardun nahi izaten du horretan.

4. Aisialdiko begirale titulua (ISU-004/014)

Maddik aisialdiko begirale titulua du, eta Ainhua horretan ari da. Maddik azaltzen du zertan datzan aisialdiko begirale titulua lortzea. Titulua frantsesa da, baina Maddik euskaraz egiteko aukera izan zuen; Ainhoak, aldiz, frantsesez egiteko hautua egin zuen. Bientzat izan da oso esperientzia aberasgarria.

5. Lizeoko lagunak (ISU-004/017)

Etxepare Lizeoan ikasita oso normala da Lapurdi, Behe Nafarro eta Zuberoko lagunak egitea, bistan da, baina lagun kuadrilla modukoak sortzen dira baita ere, eta aste burutan bildu ohi dira gero, txangoak edo dena delako planak egiteko. Beraz, ikasle horiek euren jaioterrietatik landa ibiltzera ohituta daude oso.

6. Gazte mugimendua (ISU-004/018)

Gaztetxeetan antolaturiko gaualdiak, bertso saioak, bilkurak, proiektuak...

7. Besta egiteko modu desberdinak (ISU-004/020)

Desberdinak dira "hegoaldeko" eta "iparraldeko" besta egiteko manierak.

8. Bertsoan nola hasi (ISU-004/022)

Ainhoak eta Maddik oso giro bertsozalea izan dute beti etxean. Maddik gogoan du bera bertsoan hasi zenean bertsolaritzak ez zuela jendartean gaur duen onarpen bera.

9. Ainhua eta Leire bertso eskolan ari (ISU-004/023)

Ainhua eta Leire lizeoko bertso eskolan aritzen dira Baionan, eta gustura, gainera. Gorakada handia bizitzen ari dira iparraldeko bertso eskoletan. Odei Barroso eta Aimar Karrika dituzte irakasle, eta gustura aritzen dira haiekin. Gasteizeko bertso eskola saioez ari zaigu Maddi.

10. Entzule gaztea Xilaba bertso txapelketan (ISU-004/024)

Publiko gaztea sumatzen da Xilaba bertso txapelketan. 2012ko Txapelketan parte hartu zuen Maddik lehendabizikoz, eta urte hartan jende gazte ugari hurbildu omen zen saioetara.

11. Bertso eskolen arteko harremana (ISU-004/026)

"Bertso eskolen egunak", "bertso udalekuak" eta halkoak sekulako aukera izaten dira Euskal Herriko hainbat bertso eskolen arteko harreman sarea ehundu eta sendotzeko.

12. Iparraldea eta hegoaldea (ISU-004/028)

Hainbat euskaldunek askotan bereizten ditu Euskal Herriko iparraldea eta hegoaldea, hitz egiterakoan eta beste hainbat egoeratan. Askoren buruan da bereizketa hori. Hirukoteak errealitate hori nola bizi duen kontatzen du, eta mugak haustekotan, batetik bestera beldurrik gabe mugitzean dago gakoa.

13. Euskalkiari eutsi ala moldatu (ISU-004/030)

Hirukoteak badu aski gaitasunik, bere euskalkian mintzatzeaz gainera, gipuzkeraz eta batuaz mintzatzeko ere. Batetik, etxean ez dutelako euskalki bakarra jaso, eta bestetik, euskal irrati eta telebista kateak ikus-entzuten dituztelako, bai eta Euskal Herri osoko literatura irakurtzen ere. Euren herritik urrunduz gero, ordea, bakoitzak bere modura eta bere hautu pertsonalekin bizi du gainontzeko euskaldunekiko harremana.

14. Musikarekiko zaletasuna (ISU-004/034)

Musikarekiko zaletasun handia izan dute familian. Ainhoa familiako gitarra jole nagusia da, baina ahizpa eta lehengusina ere ari dira ikasten. Maddi eta Ainhoa "Soinu Tiki" elkartearekin ere ibiliak dira, herririk herri, eta baita atzerrian ere. Ainhoak eusten dio, nolabait, orduko taldekide batzuekin biltzeari. Maddi utzia du, halabeharrez, ikasketal direla medio.

15. "Zezenaren Taldea" (ISU-004/036)

Musikari dagokionez, denetik entzuten dutela diote. Hala ere, Leire "Zezenaren Taldea"-ren zale itsu azaldu da. Garazi eta Itsasu inguruko musikariez osaturiko taldea da, aski musika berezia egiten duena.

16. Esamolde eta irainak, erdaretan (ISU-004/040)

Esamolde eta irainak bakoitzak bere modura botatzen dituzte, bakoitzak hizkuntza hautu ezberdinak eginez, baina euskaraz, ia inoiz ez. Zer pentsa ematen dienez, hausnarketa abiatzen dute gaiari buruz.

17. Hika jardun nahi, baina ezin (ISU-004/041)

Hika aritzeko geroz eta ezagutza gutxiago du jendeak; ondorioz, gaitasun gutxiago.

18. Aitak noka (ISU-004/043)

Zaharragoei hika ezin zuzentzeari buruz.

19. Maileguak eta kalkoak (ISU-004/045)

Hirukoak natural ikusten du beste hizkuntzetatik mailegatutako hitzak eta kalkoak izatea. Leirek, baina, euskararen ezagutzaren garrantzian jartzen du azpimarra.

20. Etxeko hizkera (ISU-004/047)

Hitz arrotzak erabiltzen hasteari eta berriak sortzeari buruz. Ikastolan batu antzekoa ikasi zutela diote, eta herrian herriko hizkeratik, aldiz, gutxi. Aitonak "rr" bikoitza egiten zuen, eta amonak, aldiz "h" hasperentzen.

21. Euskara "normalizatuagoa" da gaur egun (ISU-004/049)

Euskaldun izateko bi manera izan dira, funtsean, iparraldean: mugimendu abertzaleari lotua bat, eta frantses izateari lotuagoa, bestea. Egun, bateko eta besteko euskaldun belaunaldi berriek, aurrekoek baino harreman normalizatuagoak dituzte, Itsasun, bederen.

22. Lizeoan ez dira guztiak euskaraz mintzatzen (ISU-004/051)

Lizeoan eta, batzuetan, ikastoletan ere, haur eta gazte guztiak ez dira euskaraz mintzatzen. Egoera horri buruz mintzo dira Marri eta Leire.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com